



Adi Jarraitzen
Dugu

Prebentzioa funtsezkoa da pandemiaren egungo egoeran, eta prestakuntza oinarrizkoa da beharrezko prebentzio hori sustatzen jarraitzeko. Gizarte Ekintza Sailak, Osasun Sailarekin lankidetzan, helburu hori lortzeko konpromisoa hartu du, eta, horregatik, laugarren online prestakuntza-zikloa prestatu dugu otsailaren 2, 9 eta 16rako, "adi jarraitzen dugu" titulupean.

Izaskun Carlos Bizkaiko Foru Aldundiko Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzuko burua arduratuko da zikloa koordinatzeaz.

ONLINE PRESTAKUNTZA DOAKO INSKRIPZIOA

Otsailaren 2an

16:00-18:00

Kalitatezko kontingentzia-plan bat izatearen garrantzia, prebentzioko oinarrizko elementu gisa

Ekainaren 19ko 29880/2020 Foru Aginduak eskatzen du zentroek kontingentzia-plan bat izan behar dutela eta gutxieneko edukia ezartzen du. Kontingentzia-plan batek zer puntu izan behar dituen, zergatik eta zertarako aztertuko da.

Andres Gonzalez. PCI erreferenteen koordinatzailea.

Adineko pertsonentzako egoitzetako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzetako kudeatzaile eta zuzendaritzakoei zuzenduta dago.

Otsailaren 9an

16:00-18:00

Aerosolen bidezko birusaren transmisioa saihesteko jardunbide egokiak

Gaur egun, ebidentzia zientifiko sendoek adierazten dute aerosolen bidezko SARS-CoV-2 birusaren transmisioa, dagoeneko aitortutakoez gain beste transmisio-bide bat dela. Jardunbide egokiei helduko diegu, bide horretatik kutsatzeko arriskua minimizatzen laguntzeko.

Ainhoa Elozegi. Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Prebentzio Medikuntzako eta Osasun Publikoko 3. urteko mediku egoiliarra.

Osasun-arloko eta zuzeneko arretako langileei zuzendutako ikastaroa.

Otsailaren 16an

15:30-17:30

Jardunbide egokiak pandemiak eragindako eragin psikoemozionalaren kudeaketan

Pandemiak estres emozionaleko egoerak eragin ditu erabiltzaileengan, familiengan eta profesionalengan. Ikastaroan, estresa tratatzeko eta arintzeko jardunbide egokiak eta tresnak proposatuko dira.

Iñigo Santisteban. Santurtziko San Juan de Dios ospitalean zainketa aringarrien arloan lan egiten duen psikologoa..

Langile guztiei eta, bereziki, diziplina anitzeko taldeari zuzendutako ikastaroa.